



SAREAN EUSKARAZ

Euskarazko Kultura Digitalaren VIII. Jardunaldiak

2024_urriak_14 & 15
Baluarte_Iruña

EGITARAUA

Antolatzailea:



Euskarazko Kultura Digitalaren Gunea

Bideo-joko zalea al zara? Eta halako zenbat ezagutzen dituzu euskaraz? Musika entzungo duzu ziur... baina smartphoneko aplikazioekin doinuak sortzen ere saiatu al zara inoiz? Eta telefonoaz ari garela, argazki kamerari zuku handiagoa ateratzen ikasi nahi duzu? Eta irudi horiek gero partekatzeke ohitura baduzu, ezagutzen al dituzu ondorio guztiak? Nola aritu beharko genuke sare sozialetan inor ez mintzeko eta guk geuk ere minik ez hartzeko? Hori guztia eta askoz gehiago dakarte Saren Euskaraz Jardunaldiak!

Adimen artifizialaren esparruan, 3D inprimagailuekin, App Inventor erabiliz, bideo-mappinga aplikatuz edota errealtate birtualaz gozatuz, zure gaitasun digitalak trebatzeko lantegiak izango dituzu eskura Saren Euskaraz Jardunaldietan. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) Amaraunean eta sare sozialetan baliatzen ditugunean erabiltzaileok uzten dugun arrastoaz ere hausnartzeko gakoak jarriko ditugu mahai gainean, eta like, chat, storie eta tiktoken aroko harreman afektibo-sexualetan arriskuak gutxitzeko baliabideak aipatuko ditugu.

Zortzi tailer praktiko, bi hitzaldi interaktibo, kontzertu bat, Break out joko bat eta Egunean Behin jokoaren zuzeneko partida bat dakartza Sarean Euskaraz Jardunaldien VII edizioak Iruñeko Baluarte Jauregira.

900 ikasle, 3 gune eta euskarazko IKTen eta kultura digitalaren erreferentziazko plaza bat: Sarean Euskaraz Jardunaldiak.
Urriaren 14an eta 15ean Iruñeko Baluarte Jauregian!

AURKIBIDEA

PLANOA
04

ORDUTEGIA
06

ERA ARETOA
07

JOLAS ARETOA &
KONTZERTUA
08

IKAS ARETOA
10





SAREAN EUSKARAZ

**Baluarte
Jauregia**

3_Solairua



IKAS ARETOA

- 1 Bideo mappinga
- 2 Errealitate birtuala
- 3 3D inprimagailuak
- 4 Robotika-Arduino
- 5 Gamer gela
- 6 Applinventor
- 7 Musika sortzeko, nahasteko eta zabaltzeko aplikazioak
- 8 Argazkilaritza mugikorrarekin, Instagram baino gehiago

ORDUTEGIA

URRIAK 14 & 15

8:45 SARRERA

9:00 HARRERA EKITALDIA

09:15-10:30 LEHEN TXANDA

(ATSEDENALDIA)

10:45-11:05 KONTZERTUA

11:10-12:25 BIGARREN TXANDA

12:30-13:45 HIRUGARREN TXANDA

ERA ARETOA

Kultura digitalak gero eta presentzia handiagoa du gure egunerokoan, baita esparru pribatu eta intimoenetan ere. Aldaketak itzelezko abiaduran datoz gainera: gailuak, app-ak, sare sozialak... etengabe agertu eta desagertzen ari dira berriagoei bide emateko. Baina horiek guztiak lanabesak besterik ez dira; erabiltzaileoi dagokigu erabilerara ona, erdipurdikoa ala txarra egitea eta horrek izan ditzakeen ondorioen jakitun izatea. Pribatutasunaren eta sare sozialen bidezko harremanen inguruko hitzaldi bana hartuko du Era aretoak; IKTekin edota hauen aurrean geure burua ez ezik, gure ingurukoena ere zaintzeko jarraibideak partekatuzko.

- **Pribatutasuna Sarean** – *Maider Likona* – *Gisa Elkarte*
Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzako alor guztietan: aisialdian, ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean? Galdera horien erantzuna jasoko dugu, eta batez ere, sareak egoki erabiltzeko hainbat aholku eskuratuko ditugu.
- **Harremanak 3.0: like bat eman** – *Ane Ortiz* – *Emaize*
Esparru digitaleko harreman afektibo-sexualen ereduaz aztertuko dugu, eta arriskuak gutxitzeko edo ekiditeko baliabideak eskainiko ditugu. Telefono mugikor bidezko balizko kontrolaren inguruan hausnartuko dugu. Sedukzioa eta ligatzea aro digitalean: sare sozialak eta ligatzeko APPak, maitasun erromantikoaren mitoak plano digitalean...

Dinamiketan parte hartzeko komenigarria da telefono mugikor bat eramatea.

JOLAS ARETOA & KONTZERTUA

Egunean Behin jokoa

Euskarazko galdera-erantzunen jokoa da **Egunean Behin**, bakarka nahiz taldean jokatzen diseinatua. Android mugikorretan zein iPhonean instala daiteke.

Dinamika oso erraza proposatzen du **Egunean Behin** jokoa. Izenak berak dioen bezala, egunean behin partida bat jokatzen aukera izango duzu. Partida bat, eta bakarra. **10 galdera erantzun beharko dituzu, ahalik eta azkarren**. Zenbat eta gehiago eta azkarrago asmatu, hobeto!

Erantzun zuzenen kopuruaren eta pasatutako denboraren arabera, puntu gehiago edo gutxiago lortuko dituzu. Eta, horren arabera, sailkapenean gora edo behera egiten duzu, jakina.

Sailkapena, normalki, asterokoa da: astelehenetik igandera bitarteko partidak hartzen ditu kontuan. Baluarte Jauregian, ordea, **zuzeneko partidak** jokatuko ditugu bertan gaudenon artean lehiatzeko.

iOs



Android



Txanda bakoitzeko 3 partida bizkor eta sari bat egongo dira. Garrantzitsua da alde zurretik jokoa aplikazioa instalatuta edukitzea.

Baina, horretaz aparte, hainbat galdera euskarazko kultura digitalaren ingurukoak izanen dira. Horiei behar bezala erantzun ahal izateko, oso lagungarria izanen da beheko esteka honetan euskarazko hainbat egitasmo digitalen inguruko bideoak alde zurretik ikustea:

www.sareaneuskaraz.eus/jardunaldiak/egunean-behin

Breakout jokoa

Kutxa batek sekretu bat gordetzen du hainbat giltzarraparekin itxita. Taldeka, pista batzuekin eta teknologiaren laguntzarekin, giltzarrapoak ireki beharko dira trebeziarekin eta adimenarekin.

KONTZERTUA

Ametz Aranguren eta Ibai Osinaga (Ibil bedi)

Ibil bedi 2018 urtean Nafarroan sorturiko pop musika talde bat da. Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost lagunek osatzen dute. Ibil bedi taldearen abestiak gai anitzezkoak dira: maitasuna, dudak, sorpresak, galerak eta bizipenak. Musikalki pop-a da estilo nagusia, baina beste estilo batzuk hauteman daitezke. Egun, euren hirugarren diskoaren (Goldea) aurkezpen biraren amaierako kontzertuak egiten ari dira eta bi kide datoz Sarean Euskaraz jardunaldian euren kantuak eskaintzera.

Tailer edo ikastaro praktikoaren gunea da. Ikasleak 20 lagun inguruko taldeetan banatuko dira eta talde bakoitzak tailer bakar batean parte hartuko du. Aldez aurretik izena eman behar da eta ikastaro batzuetarako beharrezkoa da telefono mugikorra edo ordenagailu eramangarria eramatea.

1 Bideo mappinga; errealitatea areagotzen proiektzioak objektuen geometrietara doitzu – *Elurmaluta*

Saio honetan bideo mappingaren inguruko esperientziak landuko ditugu eta oinarrizko kontzeptuak praktikaren bidez ezagutuko ditugu, korapilo teknikoetan sartu gabe. Lau gune izango dira eta bakoitzean ariketa bat egingen da. Besteak beste, honako hauek egingen dira: kideen gainean proiektatutako jantziak marraztu, ikasleen aurpegiak erabiliz paretetan aurpegi berriak sortu eta irudiak geometria jakin batera doitzen ikasi. Horretaz gain, bideo mappingaren inguruko aplikazioen adibideak ikusiko ditugu.

2 Errealitate birtuala – *Protomakers*

Ibilbide labur bezain oparoa duen errealitate birtualaren mundura hurbiltzeko aukera izanen dugu tailer honetan. Betaurrekoak jantzi eta jauzi egin zure aurrean zabalduko den mundura.

3 3D inprimagailuak – *Protomakers*

Badakizu gai zarea zeure objektuak sortzeko 3D inprimagailu baten bidez? Objektu bat sortzeko, diseinatzeko eta modelatzeko prozesu guztia segituko duzu objektua inprimatu arte. Saretik diseinuak eskuratzeko eta partekatzeo aukera izango duzu.

4 Robotika-Arduino – *Protomakers*

Arduino mikrokontroladorea beste elementu elektroniko batzuekin konektatzeko, robotikan eta automatizazioan murgiltzen hasteko eta eskema elektronikoak interpretatzen ikasteko tailerra. Honako hauek

egiteko aukera izanen duzu: LED bat piztu, zenbait sarrera landu (pultsadoreak, temperatura sentsorea e.a.), bozgorailuak eta motoreak irteera gisa aktibatu etabar. Ikasitakoarekin, parte-hartzaileek, binaka, automatizazio proiektutxo bat egingo dute.

5 Gamer gela – *Game Erauntsia*

Hasteko, bideo-jokoaren kontsumoaren inguruko gogoeta egingen dugu, hizkuntzaren erabilera sakonduz. Edukiak modu dinamikoan landuko ditugu, inkesta eta talde eztabaida baten bidez. Bigarren atala bideo-jokoaren praktikari dagokio, eta euskarazko bideo-jokoak txandaka eta binaka probatuko ditugu.

6 ApplInventor – *Talaios*

Ikastaro honen bidez, Android mugikorrentzako aplikazioak sortzeko oinarrizko ezagutza jasoko dugu. ApplInventor zerbitzuaren interfazea erabiliz, partaideei mugikorretarako oinarrizko aplikazio bat sortzeko eta bakoitzak bere Android mugikorrean instalatzeko prozesua erakutsiko zaie. Partaide bakoitzak, posible bada, Android sistema duen mugikor bat eraman beharko du.

7 Musika sortzeko, nahasteko eta zabaltzeko aplikazioak *Dj Makala*

Mugikorrek, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen dituzten musika aplikazio berriak era errazean, intuitiboan eta dibertigarrian erabiltzera bideratutako saioa izango da. Ezinbestekoa da nork bere smartphonea edo tableta eta aurikularrak eramatea.

8 Argazkilaritza mugikorrekin, Instagram baino gehiago *Oier Fuentes*

Teknologia gure gorputzaren atal berri bihurtu den honetan, eskuan eta eskura dugun mugikorrekin argazkiak egitera ohitu gara. Baina etekinik ateratzen al diogu mugikorraren kamerari? Ezagutzen al ditugu dituen ezaugarriak?

	1. txanda	2. txanda	3. txanda
IKAS aretoa	A	B	D
ERA aretoa	D	A	B
JOLAS aretoa	B	D	A

Urriak 14

A Taldea

Alaiz BHI
Eunate BHI

B Taldea

Iparralde DBHI
San Fermin Ikastola

D Taldea

Berriozar BHI
Iñaki Ochoa de Olza DBHI
Petri Atarrabiakoa DBHI

Urriak 15

A Taldea

Biurdana BHI

B Taldea

Iturrama BHI

D Taldea

Jaso Ikastola
Mendillorri BHI
Paz de Ziganda Ikastola

Antolatzailea: